EHUko MIKROKREDENTZIALAK

PRESTAKUNTZA ESKAINTZA BAT PROPOSATZEKO GIDA

Deialdi honetan, GAUR plataformaren bidez aurkeztu eta grabatuko dira EHUko Mikrokredentzialak, "Berezko tituluak" atalean. **Microsoft Edge** lehenetsia eduki behar da.

Dokumentu honetan azalduta dago erabiltzailea nola sartu behar den plataforman GAUR bidez, nola aurkeztu eta grabatu behar diren proposamenak eta nola egin behar diren jarraipena eta balorazioa, baita bete beharreko eranskinak zeintzuk diren ere.

Errektoreordetza honetan berezko ikasketei lotuta sortu den **Mikrokredentzialen taldearen** laguntza jaso dezakezu prozesuak iraun bitartean; horretarako, helbide honetara idatzi besterik ez duzu: mikroak@ehu.eus

1. GAUR PLATAFORMAN SARTZEA

SARTZEKO BAIMENA

- **Lehendabizikoz sartuko bazara** berezko tituluen plataforman, ***SARBIDE PROFILA*** eskatu behar duzu helbide elektroniko honetan: mikroak@ehu.eus
- **"Berezko tituluak" profilean sartzeko aukera baldin badaukazu aurretik ere** (hau da, inoiz sartua bazara bertan), ibilbide hau hautatu behar duzu GAUR plataforman:
  - Irakasleak, TEKAZEL eta EHUtaldeak
    - Unibertsitateko akademia gestio gaurkotua

Behin zure e-maila eta pasahitza sartuta, pantaila berria irekitzen denean, sakatu "***BEREZKO TITULUAK***" eta "Jarraitu", hurrenez hurren.

SARBIDEA

Plataforma honetan sartzeko, **"JAVA" PROGRAMA** instalatuta eta exekutatuta izan behar duzu.

Ondoren, GAURen berezko tituluei dagokien pantailan sartu behar zara. Horretarako, zabaldu menua zabaldu eta sartu hemen: **"*MIKROKREDENTZIALEN ETA UNIBERTSITATE HEDAKUNTZAKO IKASTAROEN PROPOSAMENAK*".**



2. PROPOSAMENA AURKEZTEA

GARRANTZITSUA. Mikrokredentziala grabatzen hasi baino lehen, Zuzendaritza Akademikoak honako urrats hauek egin behar ditu:

- **"Organo proposatzailearen erabakia**" eskatzea.
- **"*EHUko Mikrokredentzial proposamena*"** dokumentua eta **"*Aurrekontua*"** izeneko Excel fitxategia betetzea (eskaini diren ereduen arabera). "EHUko mikrokredentzial proposamena" ereduaren barruan, nahitaezkoa izango da "mikrokredentzialaren programa eta irakasleen zerrenda" atala betetzerako orduan beste PDF bat txertatzea honen barruan horretarako egokitutako eremuan, hau da entregatuko den PDFan atxikitzea. Horretarako, **"Adobe Acrobat"** erabili beharko da. Programa hau ez izatekotan, CAUri eskatu beharko zaio instalazioa. "Acrobat Reader" -ek ez digu aukera hori ematen.

Hiru dokumentuak "mikrokredentzialaren proposamenarekin" batera kargatuko dira GAURen.

Aurreko menutik sartu behar da hurrengo pantailara. Bertan, berez agertuko da ikasturtea, balio lehenetsi gisa; **"*IKASTARO MOTA*"** atalean "***Mikrokredentzialak***" aukera hautatu behar da, eta **"*EDIZIOA*"** atalean dagokion datua sartu. Ez dago atal gehiago bete beharrik.

"*PROGRAMAK*" atalean:

- Aldez aurretik mikrokredentzialen bat grabatuta badago GAURen, zerrenda batean jasota agertuko dira guztiak. Horietako batean sartzeko, bi aldiz klikatu behar da dagokion izenaren gainean.

- **MIKROKREDENTZIAL BERRI BAT SORTZEKO**

"***Programak***" atalean kokatuta, zerrenda laranjan jarri behar duzu kurtsorea; hala, pantailaren goiko aldean ageri den ikonoan klik eginda, proposamenak grabatzeko gunean sartuko zara.



Bete beharreko lehenengo datua mikrokredentzialaren **"*IZENA*"** da, zeina **hiru hizkuntzetan grabatu behar baita**. (Datu hau da hiru hizkuntzetan grabatu beharreko bakarra; plataformako gainerako datuetan aukerakoa da).



Izenburua gordetzeko "***Ados***" sakatu behar da, eta "***GAITASUNAK***" pantailara eramango gaitu aplikazioak (gehienez 3 gaitasun adierazi behar dira).



Gaitasunei dagokien pantailan "***Ados***" sakatu ondoren, **"*PROPOSAMENAK*"** pantaila orokorra irekiko da: Datuak errazago grabatzeko, erlaitzen lerroan ageri den informazioa soilik grabatu beharko da (urdinez markatuta dagoena), eta, horretarako, informazio hori betetzeko ereduak eskuragarri egongo dira Mikrokredentzialen atalean.



Pantaila honetan, **"*ARLO ZIENTIFIKOA*"** atala grabatu behar da; horretarako, jarri kurtsorea atal horretan dagoen lauki laranjaren gainean, eta eskatu balioen zerrenda. Pantailaren goiko aldean, aukeratu gorriz markatuta dagoen ikonoa (botoi horren bidez hainbat balio gertuko dira).





Bertan klik eginda pantaila bat irekiko da (hemen behean ageri dena); bertan, nahi duzun aukera hautatu behar duzu, eta "***Ados***" botoia sakatu.



Ondoren, **"*HASIERA DATA*"** eta **"*AMAIERA DATA*"** sartu behar dira. Atal hori betetzeko, "egutegia" aukeratu eta txertatu bertan kasuan kasuko datak:



Erlaitz honetan, aurretik adierazi denez, "EHUko mikrokredentzial proposamena" izeneko dokumentua erantsi beharko da hartarako gaitutako laukitxoan.

Bestalde, komeni da argitzea "***BIDALI BULEGORA***" botoia azken urratsa izango dela; hortaz, proposamen osoa grabatuta eduki arte aplikazioak ez digu dokumentua bidaltzen utziko.

Behin informazioa grabatuta, garrantzitsua da datu guztiak gordetzea; horretarako, ikur hau sakatu behar duzu pantailaren goiko aldean:



Aurretik adierazitako atal guztiak bete ondoren, eta informazioa grabatuta dagoenean, erlaitzez erlaitz eramango gaitu aplikazioak. Orduan, organo proposatzaileari eta Zuzendaritza Akademikoari buruzko datuak eskatuko dira:



Hautatu proposatzaile **"*MOTA*"** eta bete **"*KODEA*"** atala; horretarako, lauki laranjaren gainean jarri behar duzu kurtsorea, eta balioen zerrenda ematen duen ikurraren gainean sakatu.

Kasu honetan, hurrengo koadro batera bertan eramango zaitu hautatu aplikazioak, eta duzu bilatu eta ahal izango informazioa.



Atal hauek ere bete behar dira: ***"IZENA"*** eta ***"ORGANO PROPOSATZAILEAREN HITZARMENA"***, aurrez eman den ereduaren arabera. Data txertatu beharko da, eta dokumentua kargatu. (Dokumentuaren izenak ezin du karaktere berezirik ez azentu markarik eduki).

Sartutako datuak gorde egin behar dira, goiko ezkerraldean dagoen "diskete" ikurrean klik eginda.

Era berean, "***ARDURADUN AKADEMIKOA***" atala ere bete behar da, balioen zerrendari dagokion atalaren laguntzaz. EHUtik kanpoko kideekin zuzendutako programen kasuan, zuzendarikidearen alta egin behar da GAUR plataforman ("1. eranskina: Kanpoko irakasleen alta"). Hala eta guztiz ere, ez da ezinbestekoa; izan ere, informazio hori jasota egongo da GAURen kargatu den "*EHUko Mikrokredentzial proposamena*" dokumentuan.

Ondoren, **"*IKASTEGI MOTA*"** adierazteko eskatuko da; bertan, fakultatearen eta sailaren izenak adierazi behar

dira. Datu horiek sartu ondoren, **"*ARGIBIDEETARAKO*"** pantailara igaroko zara, eta bertan zehaztasun gehiago eskatuko zaizkizu, behar izanez gero, zurekin harremanetan jarri ahal izateko.

"*EMATEKO LEKUA*" atalari dagokionez, adierazi beharko da ikastaroa aurrez aurrekoa ala online formatukoa izango den. Prestakuntza **aurrez aurrekoa** bada, "***Baimena***" dokumentua kargatu beharko da, eta baimenaren data adierazi, zeinak bat etorri beharko baitu kargatu beharreko dokumentuan adierazitakoarekin.

Adierazitako erlaitzetan eskatzen den informazioa bete ondoren, "***ONARPENA***" erlaitzean ageri den informazioa sartu behar da; bertan, ikasleen kopuruak sartu behar dira ***"GUTXIENEZ"*** eta ***"GEHIENEZ"*** laukitxoetan**,** eta hautaketarako erabiliko den prozesua adierazi beharko da (izen-ematearen ordena, adibidez).

Era berean, "***HAUTATZEKO IRIZPIDEAK***" eta "***ESKAKIZUNAK***" atalak bete beharko dira. Kasu bietan, balioen zerrendari dagokion ikurra erabiliko da (zirkulu gorri batez markatuta).



Ez da beharrezkoa "***Irakasleen curriculumak***" izeneko erlaitza betetzea.

Azkenik, "***BESTE DATU BATZUK***" erlaitzean zenbait dokumentu kargatuko dira, .PDF formatuan (ereduan adierazi legez).



- "Interes adierazpena" atalean, "Interes adierazpena EHU" izeneko dokumentua kargatu beharko da (karaktere berezirik eta azentu markarik gabe), erakunde batek prestakuntza jakin bat eskatzen duela adierazteko.
- "Aurrekontua" atalean, kasuan kasuko mikrokredentzialaren aurreikuspen ekonomikoari dagokion Excel dokumentua kargatu beharko da.

GAURen ERANTSI BEHAR DEN DOKUMENTAZIOA

Amaitzeko, GAUR plataformara igo behar den **dokumentazioa** adieraziko da jarraian. Horrekin batera adierazita dago zer erlaitzetan erantsi behar den agiri bakoitza, eta berau betetzeko zer eredu erabili behar den.

- ***MIKROKREDENTZIAL PROPOSAMENA.*** Erlaitz honetan: ***"PROPOSAMENA".***
    - **"EHUko mikrokredentzial proposamena"**
- **ORGANO PROPOSATZAILEAREN ERABAKIA.** Erlaitz honetan: ***"ARDURADUNAK"***
    - **"Organo proposatzailearen erabakia"**
- **INFORMAZIO EKONOMIKOA.** Erlaitz honetan: ***"BESTE DATU BATZUK"***
    - **"Aurrekontua"**
- ***INTERES ADIERAZPENA.*** Erlaitz honetan: ***"BESTE DATU BATZUK"***
    - **"Interes adierazpena EHU"** Erakunde batek prestakuntza jakin bat eskatzen duenean soilik.
    - ***BALIABIDEAK BAIMENTZEA.*** Erlaitz honetan: ***"EMATEKO LEKUA"*** (aurrez aurrekoa bada soilik)

Dokumentuak GAUR plataformara igotzeko, dokumentuaren izenak ezin du karaktere berezirik ez azentu markarik eduki.

Behin beharrezkoak diren dokumentu guztiak kargatuta, eta grabatzen bukatu ondoren, "Gorde" botoia sakatu behar da informazioa gordetzeko eta "**Proposamenak**" erlaitzera itzuli behar da. Orduan, ***"BIDALI BULEGORA"*** sakatu

behar da. Informazioa zuzen sartu bada, eskaera bidali egingo da. Daturen bat bete gabe geratu bada, testu koadro bat aterako da, gorriz adierazita zer zuzenketa egin behar den eskaera bidali ahal izateko.

3. MIKROKREDENTZIALAREN JARRAIPENA ETA BALORAZIOA

Mikrokredentziala grabatu eta bidali ondoren, honako urrats hauek egin behar dira:

- **Berezko ikasketen atala** arduratuko da deialdi honetan ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatzeaz, proposamena zuzen grabatu dela ziurtatzeaz eta mikrokredentzialaren aurreikuspen ekonomikoa aztertzeaz.
- **Graduondoko Batzordeak** mikrokredentzialaren balorazioa egingo du, jakintza arloa kontuan hartuta; eta hobetzeko proposamenak egingo ditu, hala badagokio.
- **Zuzendaritza Akademikoak**, graduondoko batzordeen argibideei jarraikiz, beharrezkoak diren aldaketak egingo ditu, eta aldaketok kasuan kasuko dokumentazioan islatuko. Ondoren, GAURen grabatutako proposamena ere moldatuko du.
- Mikrokredentziala **Graduondoko Batzordearen** onarpenaren zain geratuko da.
- **Mikrokredentziala EHUren webgunean argitaratuko da** eta **EHUon gela birtuala** sortuko da.
- Ikasleak **matrikulatzeko aukera** irekiko da **GAURen eta EHUon gunean**, berezko ikasketen atalaren bitartez.
- Irakasleek **EHUon gela birtuala** prestatuko dute (beste gune birtual batzuetatik lekualdatu daiteke informazioa).
- **Irakaslana antolatuko da eta eskolak emango dira,** aurrez ezarritako egutegiaren arabera.
- **Ikasleen ebaluazioa** egingo da; ikaskuntzan espero ziren emaitzak lortu direla egiaztatuko da, eta kalifikazioak aktetan jasoko dira ("gai" ala "ez gai").
- **Mikrokredentzialaren balorazioa** egingo da (ebaluazio inkestak: Zuzendaritza Akademikoa, irakasleak eta ikasleak).
- **Kalitatea Bermatzeko Barne Sisteman** ezarritako adierazleak bete diren zehaztuko dute irakasleek. Hauek dira adierazleak:

  matrikulatu diren ikasleen kopurua; enplegu aktiboa duten ikasleen kopurua; atzerriko ikasleen kopurua; beste unibertsitate batzuetatik etorritako ikasleen kopurua; kanpoko/barruko irakasleen tasak; irakasle doktoreen ehunekoak; emaitza ekonomikoak; arrakasta tasa; irakasleen gogobetetze maila; ikasleen gogobetetze maila.
- **Zuzendaritza Akademikoaren eta ikasleen ziurtapena** (Europass) bideratuko du berezko ikasketen atalak.

1. ERANSKINA: KANPOKO IRAKASLEEN ALTA

Zuzendaritza Akademikoa EHUtik kanpoko irakasleekin partekatzen bada, eta zuzendarikidea GAUR plataforman jaso nahi bada, aldez aurretik alta egin behar zaio EHUtik kanpoko langile horri. Horretarako, GAUR plataforman ***"EHUkoak EZ DIREN LANGILEEN MANTENTZEA"*** atalean sartu behar da eta, zabaltzen den pantailan, EHUtik kanpoko pertsonaren datuak sartu behar dira.


sasc0040-Menua
G.A.U.R.
Justificante desplazamiento estudiantes especiales
Mantentze orokorrak
EHUkoak ez diren langileen mantentzea
Kanpoko erakunde eta enpresak
EHUkoak ez diren langileak
EHUkoak ez diren irakasleak
Matrikulak
Onarpena
Berezko tituluak
Proposamena
Proposamena kopiatu
Berezko tituluen proposamenak
BT ¿ Proposamenak gordetzeko eskuliburua
Mikrokreden. eta Unib. Hedakuntzako Ikastaroen proposamenak
Txostenak
Profila aldatu


Ekintza Editatu Kontsulta Erregistroa Eremua Ventana Laguntza
datospersonas_noupv-EHUkoak ez diren langileen mantentzea
Helbideak
Kanpoko irakasleak
EHUkoak ez diren langileak
Pertsonaren identifikazioa
NAN / Pasaportea...
Agiri mota
Sexua
Irakaslea
AZP
1. abizena
2. abizena
Izena
Jaiotzaren datuak
Jaioteguna
Herrialdea
Probintzia
Departamendua edo eskualdea (atzerritarrak)
Herria
Herria (atzerritarrak)
Beste datu batzuk
Nazionalitatea (estatua)
Gizarte Segurantzako zenbakia
Harremanetarako tel.
2. telefonoa
Faxa
Helb.el.
E-mail (corporativo)
Oharrak
Informazioa jaso

2. ERANSKINA: IKASKETAREN EMAITZAK AURKEZTEA

"***EHUko mikrokredentzial proposamena***" dokumentuan ***Ikaskuntzaren emaitzak*** jasotzeko eskatzen da. Emaitza horiek agertuko dira ikasleei ematen zaizkien ziurtagirietan. Hori dela eta, komeni da "**Guía de apoyo para la redacción de puesta en práctica y evaluación de los resultados de aprendizaje de ANECA**" izeneko gida irakurtzea, bereziki 3. kapituluan jasota dagoena **("3. ¿Cómo se formulan, evalúan y revisan los resultados de aprendizaje?**"). Dokumentu horretan, honela definitzen dira ikaskuntzaren emaitzak: "declaraciones de lo que se espera que los discentes conozcan, comprendan y/o sean capaces de hacer al final de un proceso de aprendizaje".

IKASKUNTZAREN EMAITZAK AURKEZTEKO, **KOMENI DA**:

- Ikaskuntzaren **bost emaitza** aurkeztea, **gehienez**.
- Emaitzak aurkeztu baino lehen, esaldi gako hau kontuan izatea: ***"Ikasleak gai izan behar du…"***
- **Aditz bakarra** erabiltzea emaitza bakoitza formulatzeko. Zenbait adibide aurkezten dira jarraian:

ANECAren aipatu dokumentuan, ikaskuntzaren emaitzak aurkezteko gomendatzen da **Bloom-en Taxonomia** erabiltzea, aditzik egokienak aukeratu ahal izateko. Sailkapen horretan adierazita dago ikaskuntza prozesuak **hiru plano** barne hartzen dituela: kognitiboa, subjektiboa eta psikomotorra. Horretaz gain, emaitzak aurkezteko baliagarriak diren aditzen zerrenda bat ere proposatzen du.

a. **Plano kognitiboa** pentsamenduarekin lotuta dago, eta horixe garatu zuen Bloom-ek gehien. Bertan adierazita dago ikasle baten ikaskuntza prozesuak sei kategoriaren arabera eboluzionatzen duela: ezagutzea, ulertzea, aplikatzea, analisia egitea, sintesia egitea eta ebaluatzea.

2. TAULA: Bloom-en sailkapenean plano kognitiboari dagozkion kategoriak ebaluatzeko aditzak

1. EZAGUTZEA	aipatu, esan, definitu, deskribatu, bikoiztu, aurkitu, zerrendatu, adierazi, aztertu, identifikatu, markatu, memorizatu, erakutsi, izendatu, ordenatu, antolatu, aurkeztu, bildu, gogoratu, kontatu, errepikatu, erreproduzitu, laburtu, taula gisa jarri…
2. ULERTZEA	asoziatu, aldatu, argitu, sailkatu, eraiki, kontrastatu, bihurtu, ondorioztatu, defendatu, dekodetu, deskribatu, desberdindu, diskriminatu, eztabaidatu, bereizi, balioetsi, azaldu, jakitera eman, zabaldu, orokortu identifikatu, ilustratu, adierazi, informatu, interpretatu, aldatu, parafraseatu, aurreikusi, antzeman, berridatzi, ebatzi, berrikusi, hautatu, kokatu, itzuli…
3. APLIKATZEA	egokitu, aplikatu, zirriborratu, kalkulatu, aldatu, osatu, konputatu, eraiki, frogatu, garatu, deskubritu, hautatu, erabili, aurkitu,

	aztertu, esperimentatu, ilustratu, interpretatu, manipulatu, moldatu, erakutsi, operatu, antolatu, praktikatu, aurreikusi, prestatu, produzitu, programatu, kontatu, hautatu, ebatzi, transferitu, erabili, baloratu…
4. ANALISIA EGITEA	analizatu, kalkulatu, kategorizatu, sailkatu, konparatu, kontrastatu, kritikatu, galdetu/kuestionatu, eztabaidatu, ondorioztatu, xehatu, zehaztu, desberdindu, bereizi, zatitu, banatu, aztertu, esperimentatu, identifikatu, ilustratu, eragin, arakatu, ikertu, erakutsi, ordenatu, antolatu, kontatu, laburbildu, testatu, baloratu…
5. SINTESIA EGTIEA	argudiatu, kategorizatu, konbinatu, bildu, osatu, eraiki, egin, garatu, diseinatu, ezarri, azaldu, formulatu, orokortu, sortu, burutu, instalatu, integratu, asmatu, manejatu, moldatu, antolatu, kausatu, planifikatu, prestatu, proposatu, berreraiki, laburbildu, berridatzi, kontatu, ordenatu, berrantolatu, bildu, berrikusi, sintetizatu, trazatu…
6. EBALUATZEA	erantsi, babestu, estimatu, argudiatu, konparatu, ondorioztatu, kontrastatu, konbentzitu, zuzendu, kritikatu, erabaki, defendatu, zehaztu, diskriminatu, aukeratu, balioetsi, ezarri, ebaluatu, azaldu, interpretatu, justifikatu, epaitu, neurtu, aurreikusi, puntuatu, gomendatu, kontatu, ebatzi, laburtu, berrikusi, baliozkotu, baloratu…

Iturria: ANECA (2013) (euskarara moldatua)

b. **Plano subjektiboa** ikaskuntza prozesuaren alderdi emozionalari dagokio, hau da, jokabideari, balioei eta etikari.

3. TAULA: Plano subjektiboa ebaluatzeko aditzak

PLANO SUBJEKTIBOA	onartu, jaso, ekin, atxiki, babestu, baloratu, konbinatu, partekatu, osatu, komunikatu, bat egin, lagundu, duda egin, defendatu, erakutsi (sinesmen bat), desberdindu, eztabaidatu, goraipatu, entzun, aurkeztu, hasi, integratu, saiatu, justifikatu, epaitu, ordenatu, antolatu, parte hartu, praktikatu, galdetu, kontatu, ebatzi, erantzun, desafiatu, jarraitu, sintetizatu, eduki, lotu, baloratu…

Iturria: ANECA (2013) (euskarara moldatua)

c. **Plano psikomotorrak** trebetasun fisikoak eta koordinazioari dagozkionak barne hartzen ditu, zeinak adierazgarriak baitira hainbat motatako prestakuntza jardueretan.

4. TAULA: Plano psikomotorra ebaluatzeko aditzak

PLANO PSIKOMOTORRA	egokitu, administratu, eutsi, doitu, arindu, aldatu, konpondu, zirriborratu, berotu, kalibratu, jarri, konbinatu, eratu, kopiatu, koreografia egin, bat etorri, erakutsi, desegin, detektatu, desberdindu (ukimenez), disekzioa egin, diseinatu, banatu, tolestu, eraiki, gauzatu, balioetsi, aztertu, finkatu, keinu egin, grabatu, identifikatu, imitatu, maneiatu, manipulatu, neurtu, nahasi, operatu, antolatu, aurkeztu, erreakzionatu, findu, konpondu, irudikatu, bildu, birrindu, erabili…

Iturria: ANECA (2013) (euskarara moldatua)

Hona hemen ikaskuntza emaitzen adibide batzuk, ANECAren dokumentutik ateratakoak (jatorrizkoa gaztelaniaz):

- *Sektore publikoaren antolamendua eta funtzionamendua deskribatzea.*
- *Baso inguruneko energia berriztagarriak zerrendatzea.*
- *Ikerketa zientifikoetako aldagaiak (independenteak eta dependenteak) identifikatzea.*
- *… era kritiko eta justifikatuan baloratzea.*

- *… oinarri hartuta, kontzeptu funtsatu bat sortzea.*
- *Lehen, bigarren zein hirugarren mailako sozializazioa konparatzea, bakoitzaren berezitasunak identifikatuta.*
- *Magnitudeak bereiztea (denbora, luzera…).*
- *Prozesu fitopatologikoak azaltzea, baita haren adierazpenak eta arrisku faktoreak ere.*
- *Ezagutza biokimikoak aplikatzea begiaren eta ikusmen prozesuaren analisian.*
- *Arazoak ebazteko egokiak diren metodoak menderatzea.*
- *Konstituzio Auzitegiaren epaietatik informazio adierazgarriena ateratzea.*
- *Gainazaleko nahiz lurpeko obrak diseinatzea eta planifikatzea.*
- *Aro Modernoko ekonomiaren historiari lotuta adierazgarriak diren iturri historikoak interpretatzea.*
- *Kasuan kasuko eremuan eskuragarri dagoen informazioa interpretatzea.*
- *Mediku lanbidearen funtsezko elementuak praktikan jartzea, printzipio hauek kontuan hartuta: …*
- *Jardun profesionalean sor litezkeen gatazka egoerak ebaztea.*
- *Lanbidearen berezko balio etikoak aurkeztea, azaltzea eta justifikatzea.*
- *Etab.*